<p>Zumaia BHI ZUMAIA Edurne Iribar / Leire Rodrigo</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Bidelaguna - HSBP-PREE - Eleaniztasunerantz - Hezkuntza Zientifikoa - Bikaintasunerantz: Norbanakoaren autonomia landuz - ULIBARRI Hizkuntza Normalkuntza Programa - Curriculum aniztasuna - Hezkidetza 	<ul style="list-style-type: none"> - Aholkularitza eta laguntza hamabostero eleaniztasun proiektuan eta Hizkuntza Proiektua egiten. - IKT formakuntza planifikatu eta eman - Hizkuntza Normalkuntza Plana aurrera eramaten lagundu. - Ikasleen euskararekiko jarrerak lantzeko aholkularitza. - Hizkuntza Proiektuaren inguruko informazioa HN Batzordean. 	<ul style="list-style-type: none"> - Eleaniztasun proiektua eta Hizkuntza Proiektua aurrera eramaten lagundu. - Golden 5 formakuntza - Sare_Hezkuntzagelan aholkularitza eta proiektua aurrera eraman - Golden5 - LH-BH etapen arteko lankidetzatza: EHUko ikerketan
<p>Zumaia LHI - ZUMAIA Jesus M^a de la Mota / Leire Rodrigo</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Bidelaguna - Hezkuntza Zientifikoa - ULIBARRI Hizkuntza Normalkuntza Programa 	<ul style="list-style-type: none"> - ASDEU proiektuan lankidetzatza: ikastetxean proiektuaren berri eman, martxan jartzeko aholkularitza lana egin eta sor daitezkeen zalantzak argitzeko laguntza eskaini. Bigarren fasean daude momentu honetan: familiekin harremanetan jarri dira eta ikasleen ebaluazioari hasiera emango diote. - Ikasketa kooperatiboa LH osoan inplementatzeko urteko plana prestatzea eta praktikan jartzea. - Ikasketa kooperatiboa LH osoan inplementatzeko formazio orokorra LHko klaustroari. - Talde kohesiorako dinamikak prestatu ditugu gelan praktikan jartzeko. - HHko curriculumaren inguruko formazioa HHko klaustroari. 3. saio. - 2016-17 programaren memoria elkarlanean egin dugu. - 2017-18 Bikaintasunerantz proiektua elkarlanean egin dugu. - Klaustroari Notak eta Faltak aplikazioa aurkeztu 	<ul style="list-style-type: none"> - 2016-17 Bidelaguna programaren inguruan aholkularitza eta jarraipena. - 2017-18 Bikaintasunerantz proiektuaren inguruan aholkularitza eta jarraipena. - IK/KI inguruan 2. urtez aholkularitza eta formazioa. - Sare_Hezkuntzagelan aholkularitza eta proiektua aurrera eraman.

1.2.3. Derrigorrezko Hezkuntzaz Kanpoko ikastetxeak

IKASTETXEA ERREFERENTEA / HPB	ESKAERAK / PROIEKTUAK		
Monte Albertia BH - ZARAUTZ Edurne Iribar / Marijose Garmendia	- Hizkuntza Normalkuntza Proiektua	- <i>Ikasgelako giroan aholkularitza</i> - <i>Hizkuntza Normalkuntza Plana aurrera eramaten lagundu.</i> - <i>Hizkuntza Proiektuaren inguruko informazioa HN Batzordean</i>	-
HHI Urola Kosta - ZARAUTZ Nerea Iriando / Marijose Garmendia	-	-	-
Oteiza Lizeoa- ZARAUTZ Edurne Iribar / Eli Trevijano	-	-	-
Aiala LHko Ikastetxea- ZARAUTZ Uxue Berridi / Marijose Garmendia	-	-	-

1.3. Hezkuntza, Hizkuntza politika eta kultura Sailaren orientabideak eta lehentasunezko jarduerak eremuak

1.3.1. Hezkuntza komunitatearen prestakuntza

Helburua	Ekintzak 2016-2017	Lorpen adierazleak	Egindakoa	Hobekuntza
Etengabeko prestakuntza eskaintzea ikastetxeetako zuzendaritza taldeei	<i>Ikastetxe publikoetako zuzendariekin ikasturte osoko mintegi iraunkorra eta zenbait formakuntza propio eta zuzendaritza programakoekin hitzartutakoak.</i>	<ul style="list-style-type: none"> - Partaidetzaren balorazioa - Gauzaketa eta zenbatian - Balorazioa 	<ul style="list-style-type: none"> - Bilerak burutu dira eta partaidetza %70ekoa izan da, justifikazioak barne. - Formakuntza gauzatu da Sorkarikoekin: Estresa 	<ul style="list-style-type: none"> - Talde kohesioa zuzendari berriekin - Konpetentzien inguruko formakuntza - Arazo egoerak kokatu - Formatzailearen bat ekarri lidergoa lantzeko.
	<i>Itunpekoekin ikasturte hasierako bilera gure Urteko Planaren aurkezpeneko eta agian ikuskariekin eta EDiagnostikoari begira besteren bat.</i>	<ul style="list-style-type: none"> - Partaidetzaren balorazioa - Gauzaketa eta zenbatian - Balorazioa 	<ul style="list-style-type: none"> - Hiru bilera: Ikasturte hasierakoa, tratu txarren adin txikikoen protokoloa, IRALE formakuntzaren eskaintza eta Urola kostako Jardunaldiak. - Balorazioa Jardunaldietan egin da. 	<ul style="list-style-type: none"> - Berdin jarraitzea eta bilera gehitu beharren arabera.
Esperientzi-trukaketan oinarritutako ikastetxeen arteko prestakuntza indartzea.	<i>BH hizkuntzetako mintegian ikastetxeen arteko esperientzia trukaketa antolatu.</i>	<ul style="list-style-type: none"> - Esperientzia trukaketa bi saioetatik behin egitea. 	<ul style="list-style-type: none"> - Egin da. 	<ul style="list-style-type: none"> - Jarraituko du.
	<i>HH/LH. IK/KI eta Bidelagunako mintegietan ikastetxeen arteko esperientzia trukaketa antolatu.</i>	<ul style="list-style-type: none"> - Esperientzia trukaketa saio guztietan egin da. 	<ul style="list-style-type: none"> - Bilera guztietan esperientziak trukatu dira. - 8 ikastetxek euren ikastetxeetan egiten denaren berri eman dute. 	<ul style="list-style-type: none"> - Berritzegune eremuko esperientzia onen bilduma egin eta ikastetxeen eskura jarri (moodle-sites)

Helburua	Ekintzak 2016-2017	Lorpen adierazleak	Egindakoa	Hobekuntza
Esperientzi-trukaketan oinarritutako ikastetxeen arteko prestakuntza indartzea.	Bizikidetza/Hezkidetza/Golden 5 mintegietan ikastetxeen arteko esperientzia trukaketa antolatu	- Esperientzia trukaketa bizikidetza-hezkidetzako saio guztietan egin da.	- Bilera guztietan esperientziak trukatu dira	- Ikastetxeen arteko esperientzia trukaketari leku egiten jarraitzea mintegian.
	Hizkuntza Normalkuntza mintegian ikastetxeen arteko esperientzia trukaketa antolatu.	- Esperientzia trukaketari tarte egitea saio guztietan.	- Bilera guztietan tarte bat izan da esperientziak trukatzeko t	- Ikastetxeen arteko esperientzia trukaketari leku egiten jarraitzea mintegian
	Hizkuntza Proiektua egiten ari diren ikasteetxeen arteko esperientzien trukaketa bideratu.	-	- Ez da egin	- Eskaren arabera.
	Robotikako proiektuak dituzten ikastetxeen arteko trukaketa	- Ikasturtean trukatzeko bi saio gauzatu	- Adoste prozesuan	- Robotikako proiektuak dituzten ikastetxeen arteko trukaketari leku egiten jarraitzea mintegian
	Urola Kostako Jardunaldi pedagogikoak	- Lau esperientzi gutxienez eta batz besteko 15eko partaidetza	- Egin da	- Berdin jarraituko dugu
	Gipuzkoako Berriztapen Jardunaldiak	- Ahalik eta irakasle gehienaren partaidetza.	- Egin da	- Dagokionak antolatuko du.
	PARTEKATUZ IKASI programan tutore diren ikastetxeen aholkularitza eta kudeaketarako laguntza	- Tutore diren ikastetxe guztietan laguntza eman	- Egin da	- Tutore den ikastetxeen laguntza ematea. - (HH-LH)

1.3.2. Hezkuntza inklusiboa eta aniztasunaren arreta

Helburua	Ekintzak 2016-2017	Lorpen adierazleak	Egindakoa	Hobekuntza
Jatorriari, etniari, generoari, sexu orientabideari lotutako arrazoiengatiko eskolaratze ez-diskriminatzailea bermatzea, erantzuna optimizatzea, gizarte integrazio eta kohesio handiagoa lortzeko.	HEI (Hizkuntza Errefortzurako irakaslea) programako irakasleei laguntza eman euskararen A1 eta A2 mailetako irakaskuntzarako	- HEI berri guztiei erabil ditzaketen baliabideen berri eman	- BH eta LH-ko Maria eta Joseko HEI irakasleei aholkularitza eta formakuntza. - HH-LH: HEI programako irakasleei zuzenean ez, baina bai ikastetxe batean irakasle tutoreari eta kontsultoreari. Balorazio oso ona izan du.	- Beharren arabera egingo da
	Udaletxeetako zerbitzuekin kolaborazioa	- Irakasleen balorazioa	- HH-LH: Urteko Planean aurreikusitakoa gauzatu da. - Hezkidetza foroa - Eskola Kontseilua - BH. Azkoitiko udal euskaltegia	- Hezkidetza foroan elkarlanean jarraitu. - Eskaeren arabera jarraituko da.
Aniztasunari eman beharreko erantzuna edo bazterkeriako edozein modu prebenitzen eta baliabideak eraginkortasunez erabiltzen laguntzea ikasle guztien mesederako.	Eskuhartze globalak eskaini, martxan jarri eta jarraipena egin.	- Irakasleen balorazioa positiboa izan da.	- HH-LH-HPB: Aniztasunari eman beharreko erantzuna eremuan, LH 1. 1kloan eskuhartze globala planifikatu eta praktikan da.	- Eskuhartze globalak eskaintzen jarraitu.

Helburua	Ekintzak 2016-2017	Lorpen adierazleak	Egindakoa	Hobekuntza
<p>Aniztasunari eman beharreko erantzuna edo bazterkeriako edozein modu prebenitzen eta baliabideak eraginkortasunez erabiltzen laguntzea ikasle guztien mesederako.</p>	<p>Gure zonaldeko Gela Egonkorra eta ZIG gelen jarraipen zehatza egin, berriak barne, garapen bikain bat izan dezaten</p>	<p>- Hiruhilero bilera egitea</p>	<p>- Zonaldean dauden Gela egonkorretako jarraipena . - ZIG geletako jarraipena - Gela Egonkorrak:gure zonaldean beharra ikusi eta gero, lehen urratsak eman dira etorkizunean gela berri bat irekitzeko.</p>	<p>- Ditugun -Gela Egonkor eta ZIGen jarraipena egin. - Urratsak eman zonaldeko baliabide berrien eskaera egiteko. - GAUTENA eta ASPACerekin jarraipen bilerak egin.</p>
	<p>Arreta goiztiarraren zabalkundea bermatu eta jarraipen zehatza egin programak garapen bikain bat izan dezan.</p>	<p>- Irailean prestakuntza saioak ematea - Mintegian jarraipena egitea - Programaren koordinazio taldean parte hartzea</p>	<p>- Irailaren 2an - Irailaren 20an - Abenduaren 16an: LOG-FISIO-TOrekin bilera gaiaren inguruan - Urtarrilaren 17an kontsultoreen mintegian - Maiatzaren 2an, kontsultoreen mintegian: hizkuntza arloa logopedia taldearekin eta arlo motorikoa HPBko aholkulariarekin - Hiru Gipuzkoako Berritzeguneetako arduradunen bilera ikasturtean zehar.</p>	<p>- Kontsultoreen mintegian jarraipena emango zaio. - Parte hartuko dugu antolatzen diren bileretan</p>
	<p>Bidelaguna eta HBSP programetako BHko ikastetxeetan irakasleekin bildu laguntza emateko eta proiektuen jarraipena eta balorazioa egiteko.</p>	<p>- Ikastetxeetan ikasturtean bi bilera egitea eta eskatutako laguntza ematea.</p>	<p>- Ikastetxeetan egin da.</p>	<p>- Ikastetxeetan egiten jarraituko da</p>

Helburua	Ekintzak 2016-2017	Lorpen adierazleak	Egindakoa	Hobekuntza
Aniztasunari eman beharreko erantzuna edo bazterkeriako edozein modu prebenitzen eta baliabideak eraginkortasunez erabiltzen laguntzea ikasle guztien mesederako.	<i>Bidelaguna programako LHko irakasleekin bildu laguntza emateko eta proiektuen jarraipen eta balorazioa egiteko.</i>	- Ikasturtean bost bilera egitea eta eskatutako laguntza ematea	- 1.hiruhilekoan 2 bilera egin dira eta eskatutako laguntza eman da: urteko plana planifikatu da, arduradun berriak programan jantzi ditugu, antolamenduak aurreikusi dira, formazioa eskaini da, ikasle zerrendak jaso ditugu eta ikastetxetako antolamenduak jaso eta BNra bidali ditugu, memoria egiten eta deialdi berriarekiko proiektuak prestatzen lagundu dugu..	- Mintegiaren eskaintza egingo dugu eta arrakastarako eremuak landuko ditugu. - Programa ikastetxeetan jarraituko dugu: gutxienez bi bilera egingo ditugu.

1.3.3. Elebitasuna Hezkuntza eleanitz baten baitan

Helburua	Ekintzak 2016-2017	Lorpen adierazleak	Egindakoa	Hobekuntza
Euskara ardatz duen hezkuntza sistema eleaniztunean ikasleek bizitzaren alor ezberdinetan bi hizkuntza ofizialak era egokian eta atzerriko hizkuntza nahikotasunez erabiltzeko gaitasuna lortzen ikastetxeei lagundu.	<i>BH hizkuntzetako mintegian ikasleen hizkuntza gaitasuna hobetzeko aukerak aztertu.</i>	- Gelan aplikatutako berrikuntzek ikasleen emaitzak hobetu dituzten baloratzea irakasleekin.	- Egin da.	- Hizkuntzetako mintegian lan horrekin jarraitu.
	<i>Hizkuntza Proiektuak osatzean ahozko dimentsioaren lanketa kontuan hartzea bultzatu.</i>	- Hizkuntza Proiektuetan ahozko dimentsioaren lanketarako erabaki metodologikoak jaso dira.	- Egin da	- Hala erabakitzen duten ikastetxeetan egingo da.

Helburua	Ekintzak 2016-2017	Lorpen adierazleak	Egindakoa	Hobekuntza
Euskararen erabilera sozialerako aukerak eta esparruak areagotzen laguntzea gazteen arteko bizikidetzaz euskaraz sustatzeko	Zarauzko Euskara Batzordean parte hartu eta lagundu aurreikusita dauden proiektuetan.	- Bileratan parte hartu da eta laguntza gauzatu da	- Bilera 2 egin dira bat Batzordean bertan eta bestea Euskeraren erabileraren azalpen bileran	- Berdin jarraitu Udaletxearekin kolaborazioan
	Euskararen egunean parte hartu eta antolatzen lagundu	- Gauzatu da	- Bilera batera deituak izan ginen eta gero abisatu zuten ez zela beharrezkoa gu egotea.	- Berdin jarraitu Udaletxearekin kolaborazioan
	HN mintegian ikasleen arteko euskararen erabilera sustatzeko estrategien inguruko prestakuntza eman eta elkartrukea sustatu.	- HN Mintegian gaiari denbora eskaini zaio eta trukea gauzatu da.	- Egin da.	- Berdin jarraitu
Ikastetxeetan hizkuntzaren irakaskuntza eta erabilera uztartuko dituen plangintza egiten laguntzea, hau da, hizkuntza proiektu eleaniztuna egiten laguntzea non euskara ardatz izango den.	Hizkuntza proiektua egiten lagundu ikastetxeei ikastetxean bertan.	- Hizkuntza Proiektua ikasturte batean egin eta abian jartzea.	- Egin dira.	- Hizkuntza proiektuak eguneratuta edukitzen lagundu.
	Hizkuntza Proiektuak osatzean Normalkuntza ikuspegitik egin daitezkeen ekarpenak aztertu	- HN Mintegian gaiari denbora eskaini zaio eta trukea gauzatu da.	- Egin da	- Berdin jarraitu

1.3.4. Material didaktikoen sortze eta kudeatze lana, eta Hezkuntza eta ikaskuntza arloetan Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien integrazio

Helburua	Ekintzak 2016-2017	Lorpen adierazleak	Egindakoa	Hobekuntza
Heziberri 2020 planean bildutako planteamendu didaktiko eta metodologikoarekin koherenteak diren ikasmaterialen eta hezkuntza edukien sorkuntza eta zabalkundea bultzatzea.	Irakasleentzat mintegia antolat	<ul style="list-style-type: none"> - Mintegia martxan jarri da - Material digitala sortu da. - PLE egin da 	<ul style="list-style-type: none"> - Martxan jarri da eta programatuta bete da - Partehatzaileek materiala egin da. - Berritzeguneko PLe egin da 	- Sare_Hezkuntza mintegia sortu. Irekia bai Sare_hezkuntzak daudenentzat eta ez daudenentzat ere
	LHko dinamizatzaileen mintegia	<ul style="list-style-type: none"> - Ikastetxeko PLE egin da - Material digitala sortu, aztertu eta sailkatu da - 	<ul style="list-style-type: none"> - Programan agertzen dena egin da - Materiala egin da - PLE egiteko tresnak eman da 	- Berdin jarraitu
Ikastetxeen eraldaketa teknologiko-pedagogikoa bultzatzea Sare-Hezkuntza gelan proiektuen bidez	Sare-Hezkuntza mintegia	<ul style="list-style-type: none"> - Bigarren urtetako ikatstxeek IKT ereduari goi maila lortzera aurkeztu dira - Gela digitala erabilpena abian jartzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Mintegia ez da egon. Ikastetxean aholkularitza eta formazioa egin da - Berritzeguneko SH batzordea Batzorde Pedagogikoan integratuta egon da. 	- Lehen esandakoa. Mintegi bat antolatu Sare-Hezkuntzan dudenentzat
	PT mintegian material digitalak sortzen kolaboratu	<ul style="list-style-type: none"> - Hiru saio egitea 	<ul style="list-style-type: none"> - Hiru saio egin dira 	- Beharren arabera antolatuko da

1.3.5. Ebaluazioa eta ikerketa

Helburua	Ekintzak 2016-2017	Lorpen adierazleak	Egindakoa	Hobekuntza
Ikastetxeetako irakasleei laguntzea oinarrizko kompetentzia guztien barneko eta etengabeko ebaluazioa egin dezaten.	<i>BHko ikastetxeei ebaluaziorako errubriken erabilera aurkeztu eta baliabideak eman.</i>	<ul style="list-style-type: none"> - Aurkezpena egitea - Ikastetxe batzuek errubrikak erabiltzen hastea 	- Mintegian eta proiektuetan egin da.	- Lan horrekin jarraitu.
Ikastetxeei lagundu Ebaluazio Diagnostikoaren inguruko barne gogoeta egiten eta dagokion Hobekuntza Plana antolatzen.	<i>Ikastetxeei ebaluazio diagnostikoari buruzko hausnarketa eta ondorengo hobekuntza plana egiten lagundu</i>	- Ikasturte hasieran, ikastetxeei ebaluazio diagnostikoari buruzko hausnarketa eta ondorengo hobekuntza plana egiteko aholkularitza eskaini zaie.	- Ikastetxetatik ez da demandarik jaso.	- Eskaintza egin eta eskaerei erantzun.

2.-HELBURU ETA HOBEKUNTZA PLANEN BALORAZIOA**2.1.-HELBURUAK**

Urteko Planean jarri genituen helburuak oso orokorrak dira eta hor jarraituko dute. Esan behar dena da bere neurrian bete ditugula.

2017/18 ikasturterako egingo dugun Urteko Planean berrikusi eta eguneratuko ditugu.

3. HOBEKUNTZA PLANA

3.1.-Hobekuntza plana

Helburua	Arduraduna	Ekintza	Lorpen adierazleak	Egindakoa	Hobekuntza
Uztartuko ditugu Hizkuntza eta Sare_hezkuntza batzordeak	Pedagogia Batzordea	Bileren denborak eta gaiak ondo definituko ditugu	- Uztarketaren emaitzak eta denboren banaketak: - Gutxienez lau bileretan egin da uztarketa definitutako eran	- Egin dugu nahiz eta denborak markatu gabe izan.	- Batzorde bakoitzak bere izapideea izango du.
Hezkuntza sarearen zabalkuntza Urola Kostan eta lidergoaren haratagoa bultzatu	Zuzendaritza	Zuzendari berriein eskuhartze zuzena	- Gauzatu da	- Zumaia LH, Zumaia BH eta Azpeitiko K. Etxegarai ikastetxeekin gauzatu da.	- Berdin jarraitu
		Zonaldeko beste Udaletxeekin saiatu koordinazioa areagotzen	- Gauzatu da	- Egin da ,hala ere ohiko harremana Zumaia eta Zarautzekin mantentzen da	- Berdin jarraitu
		Ikastetxeetan BGeko ezagutza sustatu	- Eskaerak ase.	- Ez da eskaerarik egon	- Eskaeren araberakoa izango da
		Bikain ziurtagiria landu Berritzegunean	- Ziurtagiria lortu	- Urrezko ziurtagiria lortu dugu eta logoa posta ta dokumentuetan erabiltzen dugu.	- Mantendu egin behar da eta erizpidei kasu egin

Helburua	Arduraduna	Ekintza	Lorpen adierazleak	Egindakoa	Hobekuntza
Inklusibitatearen aldeko plangintza prestatu eta zabaldu	HH-LH-HPB	Hilean behin barne koordinazioa	<ul style="list-style-type: none"> - Barne koordinazio plangintzan aurreikusitako bilerak burutu dira. - Irailean, lehenengo zuzendarien bileran, plangintza aurkeztu da 	- Egin da	- Berdin jarraitu
		Plangintza egin, aurkeztu eta eskaintza zabaldu ikastetxeei.	<ul style="list-style-type: none"> - Eskoletan, ikasturte hasieran, HPBko aholkulariak kontsultoreei plangintza aurkeztu die - Eskoletan, ikasturte hasieran, HH-LHko aholkulariak zuzendaritzakoei plangintza aurkeztu die 	- Egin da	- Berdin jarraitu
Sare Hezkuntza programa zabaltzea	HH-LH-BH- IKT	IKT aholkulariarekin programaz jabetu	<ul style="list-style-type: none"> - PLE egin - Material digitala sortu 	- Jarraitu behar da	-
		Mintegietan baliabideak era digitalean erabili	- IKT-LH aholkularien artean IKT eta aplikazio desberdunak gelan lan egiteko mintegia sortu eta praktikan da.	- Egin da	-
		Ikastetxeetan gaia landu	- IKT-LH aholkularien artean ikastetxe bateko proiektuan txertatuta, baliabide digitalen inguruko formazioa eta baliabideak prestatzen dihardugu.	-	- Datorren kurtsorako helburua

Helburua	Arduraduna	Ekintza	Lorpen adierazleak	Egindakoa	Hobekuntza
Proiektuen barnean, arazo-egoerei buruzko hausnarketa egin.	BH	<i>Arazo-egoerak gure aholularitza eta prestakuntza saioetan txertatu.</i>	- Mintegi saio eta proiektuen prestakuntzan arazo-egoerak aztertu dira.	- Egin da.	-
Ahozko dimentsioaren lanketa sistematikoaren beharra zabaltzea	HN	<i>Irratia ahozko hizkuntza lantzeko tresna bezala duen egokitasunaz hausnartzeko lan taldea dinamizatu, prestakuntzarako materiala sortu eta esperientzien trukea antolatu.</i>	- Lan taldea antolatu da eta ikasturtean zehar bost aldiz bildu da esperientziak trukatu, eztabaidatu eta prestakuntza jasotzeko	- Lan talderik ez da osatu baina Orokietan gai honen inguruan duten kezkarik erantzuteko bertan hilean behin bilduko gara.	-
Sare_Hezkuntza dauden ikastetxei lagundu	IKT-HH-LH-BH	<i>Sare_Hezkuntzako mintegia Ikastetxean aholkularitza, formazioetan lagundu eta ahal den neurrian proiektuan parte hartu IKT arduraduna eta etapako aholkulariak</i>	- Proposamen zehatza eraman da ikastetxeetara - Ikastetxeek egindako lanean lagundu dugu	-	- Areagotu
Materialen kudeatze lana; Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien integrazioa	HPB	<i>Digitalizatutako materialen azterketa eta eguneraketa.. TGIRMULT karpetaen eguneraketa.</i>	- Material digitalizatuen antolamendu berria egin dugu - Hiru saio eskaini zaizkio kurtsoan zehar lan honi.	- Egin da	<i>Gure barne karpeta hornitzen eta eguneratzen joango gara.</i>

3.2.-Zarauzko Berritzeguneak burutu duen formakuntza

Urteko Planean proposatu genituenetik gehienak burutu dira..

Bertan behera geratu direnak honako hauek izan dira:

- **Irratia: ahozko dimentsioa lantzeko tresna ezin hobea:** Ikastetxe bakarrak eman zuen izena eta arduradunak in situ eman du formakuntza.
- **IK/KI: LHko 1-2 mailak:** Ez da talderik sortu
- **IK/KI: LHko 3-4-5-6 mailak:** Ez da talderik sortu
- **Zientzia Hezkuntza LH- DBH: Ingurunea arakutzen**
- **Ebaluazioa: Hezkuntza Proiektuaren eta ikastetxeko curriculumaren bidetik**
- **Ebaluazio Diagnostikoa: markoa**

3.3.-Mintegiak eta lan-taldeak

3.3.1.-Mintegiak

Prestakuntza ekintza	Arduradunak	Landutako gaiak	Aurrera begira
PT mintegia	<i>Leire Rodrigo (Aintzane Belaustegi)</i>	<ul style="list-style-type: none"> - IKT en inguruan sakontze-lana. - Aplikazio ezberdinak ezagutzeko aukera. (Kahoot , symbaloo...) - Plataforma berrien ezagutza.. - - Adopzioa eta Harrera kasuak 	<ul style="list-style-type: none"> - IKT inguruan sakontze lanak. - Materiala sortzeko lantalde bat egin eta gai konkretu bati buruzko materialak sortu LHko etapa guztietarako.
Kontsultoreen mintegia	<i>Eli Trevijano</i>	<ul style="list-style-type: none"> - Agenda (hiruhilabetero) - CNEak - Arreta Goiztiarra programaren jarraipen zuzena egin da eta detekzio espezifikorako formakuntza eman da mintegian (hizkuntza arloa eta arlo motorikoa) - Adopzioa eta Harrera kasuak 	<ul style="list-style-type: none"> - Mantenduko da mintegia eta zentroen interesen arabera gai desberdinak jorratuko dira. - Arreta Goiztiarreko programari jarraipena emango zaio.

Prestakuntza ekintza	Arduradunak	Landutako gaiak	Aurrera begira
Orientatzaileen mintegia	Marijo Garmendia	<ul style="list-style-type: none"> - Aurkezpena eta - Datak eguneratu - Moodle plataforma - Orientasite-Orientabg - Agendak bete. Kronogramak - Tutoretza plana - CNEak - AURRERA. orientazio koadernoak - Legearen azken zehaztapenak aztertu ditugu - Lanbide Heziketaren inguruko zehaztapenak ikaslaneko ordezkari bat etorri zen. - TKNIKA bisitatu dugu - Adopzioa eta Harrera kasuak 	<ul style="list-style-type: none"> - Mintegiarekin jarraitzea nahi dugu - Legeak dakartzan aldaketak elkarrekin zehaztu. - Kaso praktikoak elkarrekin bideratu
BH eta LHko dinamizatzaileak	Txomin Balza	<ul style="list-style-type: none"> - Markadore sozialak - Edukien plataformak - Aplikaziak gelan lan egiteko 	<ul style="list-style-type: none"> - Berdin jarraituko du
IKT gelan	Txomin Balza	<ul style="list-style-type: none"> - Aplikazio desberdinak landu dira gelan erabiltzeko. - Kahoot-Socrative - Materialak sortzeko aplikazioak - Pinterest 	<ul style="list-style-type: none"> - Nahiz eta balorazio ona izan datorren kurtzorako ez da egingo. Sare_Hezkuntzan daude ikastetxeekin interbenzio globalak egin behar dira.
ULIBARRI Hizkuntza Normalkuntza Programa	Josune Igoa	<ul style="list-style-type: none"> - Ikasturteko HN Planaren kudeaketa. - Eskola Hiztun Bila jardunaldietan sortutako materialaren lanketa - Euskara ardatz eta ikasle eleaniztunak helburu dituen ikastetxearen Hizkuntza Proiektua - Ikasleen HN Batzordeak (BH) 	<ul style="list-style-type: none"> - Jarraituko du
Ostegun Musikalak	Josune Igoa Mertxe Merino	<ul style="list-style-type: none"> - Bi asterik behin biltzen dira. - Otsailean ikastaroa egiteko asmoa dute, oraindik ez da 	<ul style="list-style-type: none"> - Jarraituko du
Hizkuntzak BHn	Nerea Iriondo	<ul style="list-style-type: none"> - Arazo egoerak hizkuntzetan - Hizkuntzen Trataera Bateratua - Teknologia berriak hizkuntzetan 	<ul style="list-style-type: none"> - Gai horietan sakontzen jarraitu. - Lan-talde bezala jarraituko du., bi gai monografikorekin
Zuzendarien mintegia	Uxue Berridi	<ul style="list-style-type: none"> - Urteko Jarduera plana eta Memoria, Ediaagnostikoa, Heziberri IRALE eta Ildo Nagusiak Formakuntza bi saio. Sorkarikoekin: lidergoaren estresa - Urola Kostako Jardunaldiak 	<ul style="list-style-type: none"> - Gaiak eta egutegia denon artean zehaztu Hezkuntza Berrikuntzak eta ikasturte hasierako Ebazpena jarraituz.

Prestakuntza ekintza	Arduradunak	Landutako gaiak	Aurrera begira
“Eskola Txikiak: Paradigma aldaketa	Mikel Goñi	<ul style="list-style-type: none"> - Helburu nagusia eskoletako Hezkuntza Proiektuen berriztatzean laguntzea izango da eta Eskola Txikietako Hezkuntza proiektu berriaren lehen oinarriak gurasoekin konpartitzeko bideak proposatuko ditugu. - Gai ezberdinei buruz irakurri eta hausnartu ondoren eskoletan aztertu beharreko gaiak mahai gaineratuko dira. - Eskoletan, lanketa horren ondotik hartuko dira Hezkuntza Proiektuan jaso beharreko erabakiak. - Paradigma Aldaketa 7 oinarritan antolatu dugu eta horien barnean eskolako eguneroko lanean oinarritzeko izango diren erabakiak islatu beharko ditugu. - Hartzen diren erabaki guztiak 7 oinarri horien baitan argudiatuko dira. Landuko diren gaiak, batez ere, gurasoekiko interakzioari lotuak izango dira, baina, honekiko eragin zuzena duten beste hainbat gairi buruz ere arituko gara: kooperazioa, inklusioa, elkarbizitza, ikasle guztien eskubideen bermea ... 	<ul style="list-style-type: none"> - Ez du jarraituko mintegi bezala. Tarteka elkartuko dira.
Eskola Txikiak: Zuzendariak	Mikel Goñi	<ul style="list-style-type: none"> - Eskola Txikien egoera aztertu, hobekuntzak proposatu, proiektua indartu, erronkez hausnartu... 	<ul style="list-style-type: none"> - Jarraituko du
Agenda 21	Eduarne Huesa	<ul style="list-style-type: none"> - 	<ul style="list-style-type: none"> - Jarraituko du.
IKTeredia eta Sare_hezkuntza mintegia	Txomin Balza	<ul style="list-style-type: none"> - Bilera bat egin da aurkezpena egiteko. - Beste saio guztia ikastetxean egin da, eta batzutan dinamizatzaileen mintegian saioaren zati bat erabili da 	<ul style="list-style-type: none"> - Datorren kurtsorako mintegi hau bultzatu
Bizikidetzaren Hezkidetzaren	Eduarne Iribar Jose Luis Alberdi	<ul style="list-style-type: none"> - Ikastetxe bakoitzaren Hezkidetzaren Proiektua - Golden5 programa: - Gelaren kudeaketa - Ikaskuntza doitua eta autonomia 	<ul style="list-style-type: none"> - Mintegikideek mintegiarekin jarraitzeko eskatzen dute - Hilero bi mintegi bilera eta formazio saio bat - Hezkidetzaren eta bizikidetzaren landuko dugu: bullying eta norbanako tutoretza. - Golden5 formazio saioetan parte hartuko dugu.

3.3.2.- Lan taldeak

Prestakuntza ekintza	Arduradunak	Landutako gaiak	Aurrera begira
IK/KI: Haur Hezkuntza	Jose Luis Alberdi eta Jesus Mari de la Mota	<ul style="list-style-type: none"> - Jolas kooperatiboak: elkarrekin jolastuz elkarbizitza positiboan, hizkuntza komunikazioan, norberaren izaeran, ikasten ikasteko eta pentsatzeko eta HHko eremuetako helburuak lortzeko eragin. - Esperimentazio kooperatiboak: esperimentatuz eta manipulatzuz ingurune fisikoaz jabetu. - Sormena eta ahozkoak ez diren beste komunikaziorako hizkuntzak eta ikasketa kooperatiboa: komunikatzea, komunikazioak ulertzea eta komunikazio-kodeez jabetzeko. - Matematika eta ikasketa kooperatiboa: elkarrekin hizkuntza matematikoaz jabetu barne mundua eta inguruarekiko elkarrenergina adierazteko. 	<ul style="list-style-type: none"> - Mintegikideek mintegia mantentzeko eskatu dute. - 2017-18an 3 bilera aurreikusten dira. - Gaiak: <ul style="list-style-type: none"> ■ Talde kohesiorako dinamikak. ■ Kooperaziorako antolamendua. ■ Kooperazioaren justifikazio curricularra. ■ Kooperazioaren ebaluazioa. ■ Kooperazioa matematika lantzeko.
Bidelaguna 2016-17	Jose Luis Alberdi Jesus Mari de la Mota	<ul style="list-style-type: none"> - Ikastetxeen arteko esperimentazio elkarjartzea egin - Programaren xehetasunak, helburuak, zalantzak landu eta argitu. - Antolamendua definitu dugu: tutoreen bete beharrak, mailako minimoak, adostutako ebaluazioa... - Monitoreen formazioa egin da - Programaren arrakastarako adierazleak definitu dira. 	- Jarraituko du
HLE (Hezkuntza Laguntzarako Espezialista)en lan taldea	Marijo Garmendia	<ul style="list-style-type: none"> - Estresari aurre egiteko teknikak landu dira bi saioetan (Sorkari lantaldearekin) - Konduktak aldatzeko teknikak saio bat. - "Sexualidad y afectividad en personas con discapacidad intelectual" gaia landu da HLE formakuntzan. 	<ul style="list-style-type: none"> - Mintegiarekin jarraitzea nahi dute saioak bi zatitan banatuz: gai bat jorratu eta gero esperientzien elkartrukaketa. - Gaiak: TEA, norberaren oreka emozionala, konfliktoen kudeaketa....
Jangeletako arduradunak	Uxue Berridi	- Hiru bilera egin dira eta batez ere azkena oso emankorra ,oso ondo baloratu da.	- Ez da ezer erabaki.
Zientzia Hezkuntza BH Robotika	Edurne Iribar	- Ikastetxeen arteko elkartrukaketa gauzatu da	- Prestakuntza saio bat emango da eta elkartrukaketarekin jarraituko da
Zientzia Hezkuntza HH-LH-DBH Mikroskopia:	Edurne Iribar	- Mikroskopiorean inguruan bi formakuntza saio gauzatu dira	- Azaroan saio bat egingo da

Prestakuntza ekintza	Arduradunak	Landutako gaiak	Aurrera begira
Zientzia Hezkuntza LH- DBH Teknologia	Edurne Iribar Jose Lui Alberdi Jesus Mari de la Mota	- Deialdi berriaren inguruko argibideak eta formakuntza saioa bat gauzatu da	- Proiektua eskatu dutenei eta interesatuei formakuntza 2 saioa gauzatuko dira
Matematika HH- LH-DBH Joku matematikoak	Edurne iribar Jose Lui Alberdi Jesus Mari de la Mota	- Bi formakuntza saio gauzatu dira	- Eskaerak badaude erantzungo da

3.4.- Urola Kosta Jardunaldiak

Izena	Arduradunak	Landutako gaiak	Aurrera begira
Martxoak 8 Ikasgaia ingelesez	Nerea Iriando	- HITZALDIA: Teaching your subject in English - IKASTETXEKO PRAKTIKA: "Musika ingelesez"	Datorren ikasturtean aukeratuko ditugu interesgarriak jotzen ditugun gaiak eta esperientziak
Martxoak 16 "Ipuina: munduratzeko baliabidea"	Jesús M ^a - Jose Luis	- HITZALDIA: "Ipuinaren balio curricularra eta instrumentala" (Nerea Astoreka Erdoiza) - IKASTETXEKO PRAKTIKA: "Ipuin kooperatiboaren garapena"	
Martxoak 23 Hezkidetzara eraikitzen	Edurne eta Jose Luis	- HITZALDIA: "Berdintasun politiketarik ikastetxeko egunerokotasunera" (Ana Agirre Saez de Equilaz). - IKASTETXEKO PRAKTIKA: "Ikastetxe hezkidetzaitetik herri hezkidetzailerara".	
Martxoak 30 HH eta LHren arteko zubia	Jesús M ^a - Jose Luis	- HITZALDIA: "HHtik LHra, urrats bat baino ez" (Nere Inda, Birginia Pozo eta Eli Trevjano). - IKASTETXEKO PRAKTIKA: "IHParen araberrako ibilbidea".	

Balorazioa

Izena	BALORAZIO OROKORRA	EDUKIAK	AZALTZEKO ERA	INTERESA ERABILGAR RITASUNA	ASMOEN BETETZE MAILA
<i>Ikasgaia ingelesez</i>	4,5	4	4,3	4	4
<i>Ipuina: munduratzeko baliabide</i>	4,8	4,8	4,9	4,8	4,8
<i>Hezkidetzara eraikitzen</i>	4,5	4,4	4,4	4,4	4,4
<i>HH eta LHren arteko zubia</i>	4,3	4,1	4,1	4,1	4

(Zazpi urtetan egindako Urola Kostako Jardunaldien txostena eranskinetan)

3.5.-HPB eta erreferentearen artean egindako eskuhartze globalak

Praktika ona zer den zehaztu nahian aritu gara.

- *“Praktika ona” izateko, ikastetxeak kontratu antzeko bat egin behar du aholkulariekin elkarrekin lanean aritzeko.*
- *Guk aholkulari bezala zer egin dugu ikastetxe horretan? Hori da aztertu behar dena.*
- *Gure eragin koordinatuaren ondorioz hobetuko da ikastetxeko jarduna. Gure lanak emango dio jardunari “balio erantsia”.*

Basakaitz	<ul style="list-style-type: none"> - <i>HPB zerbitzuaren funtzionamenduaren berri eman zaio klaustroari.</i> - <i>Esku-hartze globala LH 1. zikloan aniztasuna lantzeko helburuarekin. Eskola txikia izanik LH1 eta LH2 gela berdinean daude . Ikasleen ezaugarriak oso anitzak dirrenez eskuhartze globala eskeini zitzaien eta hala gauzatu da.</i> - <i>Antolamendu berria gurasoei aurkezteko materiala eskaini dugu</i>
------------------	---

4-ANTOLAKUNTZA ETA FUNTZIONAMENDUA.

4.1.-Klaustroa eta Batzordeak

4.1.1.-KLAUSTROA

Partaideak

Berritzeguneko kide denak

Egindakoa

Bederatzi bilera egin ditugu.

Bileretako batean Urteko Planaren eguneraketa eta osaketa egin genituen. Uztailean entregatu zenetik hona egon diren aldaketak sartzeko eta Zuzendarien bilera orokorra prestatzeko

Bigarrenean, “arazo egoeren” gaiari buruzko formazio txiki bat egin genuen.

Horrez gain, Berritzeguneak duen lan planaz aritu ginen, Unitate Didaktikoak, IKT ikastetxea helburu eta Hizkuntza proiektuaren inguruan.

Landutako beste gaiak. Gipuzkoako Jardunaldiak,Zuzendarien arteko bileretatik ekarritakoak, Proiektuen deialdiak, Memoria, asebetetzea.

Egin gabe geratu dena

Ez da ezer geratu egin gabe.

Balorazioa

Ona.

Urteko Planean jarritakoa bete dugu.

Aurrera begira

Antolaketa berarekin jarraituko dugu.

4.1.2.-Koordinazio Pedagogikorako Batzordea

Egindakoa

Hemezortzi bilera egin ditugu.

- Bost bileretan egin dugu Sare-Hezkuntza azpibatzerdea.
- Hiru bileretan egin dugu Hizkuntza azpibatzerdea.

Ohikoetan landutako gaiak: ikasturte hasierako formakuntzak, Bikain ziurtagiria, zuzendarien bilera orokorra, Ildo Nagusiak eta berauen lan- plangintza, Lakuatik ekarritakoak, Bilboko Inklusibitateari buruzko jardunaldiak, autismoari buruzko ikerketa eta Gabonetako Hausnarketaren prestaketa, UUKK Jardunaldiak, Gipuzkoako Berriztapen Jardunaldiak, arazo egoerak, Haurren eta nerabeen babesgabetasunerako protokoloa, jantokietako arduradunen bilera, ikuskarien azalpena: (lupa jarri behar dute ikastetxeetan dokumentuak ondo begiratzeko), Hezkidetzeta Foroa, Martxoaren 8ko balorazioa, moskosoak/kanosoak, Proiektuen deialdiak, 3.mailako barne ebaluazioa, Ebaluazio Diagnostikoa, X fragilak, Haur adoptatuen harrera plana, ezohiko etorkinen matrikulazioa, ikasturte amaieraren antolaketa, Zarauzko Udal Kontseilukoak, Memoria, asebetetzeak.

Egin gabe geratu dena

Hilean behin Sare-Hezkuntza eta Hizkuntza Batzordeak txandakatuz egingo genituela aurrikusi genuen baina ez da hala suertatu. Sare Hezkuntza bost aldiz egin dugu baina Hizkuntza batzordea hirutan.

Balorazioa

Hizkuntza Batzorderako eskaera gutxi egon dira gure zonaldeko ikastetxetan eta ez da premiarik ikusi gehiagotan tratatzeko.

- Orokorrean gehientsuena bete da.
- Pedagogi Batzordearen "ekintzak" atalean agertzen zen "Berritzeguneko barne kohesioa sustatu" puntua, helburuetara pasa dugu.
- Premiazko eskuhartzerik ez da egon ikasturte honetan.
- Ikasturte amaierako asebetetzea berrikusi egingo dugu datorren ikasturteari begira. Hobesten duguna da HPBko asebetetzea eta bestea aparte entregatzea, jasoketa erreztu egingo da eta modu honetan.
- Ekintzetan azaltzen den "Premiazko gaiak" kendu egingo dugu zerrendtik, beste puntuetan integratuta geratzen da eta.

Aurrera begira

Pedagogi Batzordeko bilerak bere datak izango dituzte eta Sare-Hezkuntza eta Hizkuntza Batzordekoek bereak. Ez dira egongo integratuta Pedagogi Batzordearen barruan.

Azpibatzerdeak txandakatuz hilean behin egin beharrean, egunak zehaztuta ipiniko ditugu datorren ikasturtera begira.

2016/17 ikasturtean Programetatik HNko teknikariak hartu du parte. Datorren ikasturtean IKT teknikariak hartu beharko luke.

4.1.2.1.- KOORDINAZIO PEDAGOGIKORAKO BATZORDEAN INTEGRATUTAKO SARE HEZKUNTZA BATZORDEA

Egindakoa

Azpibatzerde bezala egun hauetan tratatu zen gaia:

- Zuzendarien bilera orokorrean azalpena egin zuen IKT Ikastetxea helburu eta ikastaroaren berri emateko
- Ezohiko PB bileran, Ildo nagusien lan-plangintza antolatu genuenean, IKT Ikastetxea ingurukoa ere landu genuen.
- Urriaren 21eko PB bileran berriro heldu genion gai honi, lan plangintzako xehetasunetan sakontzeko.
- Urtarrilaren 27an, zonaldeko egoera, mintegien martxa eta **PuntuEUS** domeinuaren gaia landu ziren.
- Martxoaren 3ko bileran, IKT eta Sare-Hezkuntzaren egoera tratatu zen

Egin gabe geratu dena

Hilero txandakatuz parte hartzearena Pedagogi Batzordean ez da erabat errespetatu.

Balorazioa

Urteko Planean jarritakoa bete da.

Aurrera begira

Azpibatzerde gisa funtzionatu beharrean bere izapidea izango du eta bere bilera datak.

Formakuntza atala berrikustekotan geratu gara. orain arte bezala funtzionatu behar du? Gaiaren arabera jendeak erabaki asistentzia? Teknikariak tutoritza orduak finkatu eta hitzordua eskatu?

4.1.2.2.- KOORDINAZIO PEDAGOGIKORAKO BATZORDEAN INTEGRATUTAKO HIZKUNTZA BATZORDEA

Partaideak: Uxue Berridi Zuzendaria, HPBtik Marijo Garmendia, LHtik Jesus Mari de la Mota, BHtik Nerea Iriondo, HNTik Josune Igoa eta Maite Garmendia idazkaria.

Egindakoa

- Urriaren 5eko PBan, LH eta BHko ikastetxeetan zer urrats emango ziren gai honi buruz aritu ginen.
- Urriaren 21eko PBan, Ildo Nagusien gaian berriro ekin genion gai honen lan-plangintza eta gure zonaldean zuen burutze mailari.
- Urtarrilaren 27ko bileran, Hizkuntza proiektuaren gaia landu zen. Ikastetxeetan nola zegoen egoera.

Egin gabe geratu dena

Hilean behin txandakatuz Pedagogi batzordean parte hartzea ez da bete. Ikastetxeetan ez da eskaera asko izan gai honi buruz eta ez dugu beharrezkoa ikusi.

Balorazioa

Egon diren beharrei emandako erantzuna eta taldean egindakoa ondo joan da.

Aurrera begira

Ez da izango azpibatzerde bat. Bere izapidea izango du eta bere bilera datak.

4.1.3. Ikastetxeen inguruko lan-taldea

Partaideak: HPB aholkulariak, Etapak, Programak, Zuzendaria eta Idazkaria.

Egindakoa

Hiru bilera egin ditugu. Gabonetako Hausnarketan ez dugu aparteko bilerarik egin; garrantzizko zerbait baldin badago komentatu da. Bilera ondo joan zen eta aurrikusi bezala burutu genuen.

Gabonetako Hausnarketan berritasunak bakarrik aipatuko ditugu; aipamen berezia beharko luketenak soilik.

Martxoan egin dugu beste bat eta azkena ikasturte bukaerako Memoria egiterakoan.

Balorazioa

Efizientzi handiko bilerak dira. Emankorrak, funtzionalak eta baliotsuak.

Aurrera begira

Bilerak nahiko ondo antolatzea lortu dugunez, horrela jarraituko dugu

4.1.4.- Elkarbizitza/Hezkidetza batzordea

Egindakoa

- Aurreko ikasturteko mintegiak ikasturte honetarako adostutakoaren eta Berritzegune Nagusiko programatik eskatutakoaren arabera, Bizikidetza, hezkidetza eta Golden5 mintegia planifikatu, gauzatu eta kudeatu dugu.
- Irailean prestakuntza ekintza burutu da: Azpeitian eta Zarautzen irailaren 5ean.
- Mintegitik, tutoretza planerako, eskola mistotik eskola hezkidetzailerantz praktika onak eta urrats berriak proposatu ditugu. Curriculumaren arabera, lehen bileran, edukien eskaintza luzatu genuen..
- Ikastetxeetako hezkidetza proiektuekiko aholkularitza eta jarraipena egin dugu..
- Ikastetxeentzat eta ikastetxeko hezkidetza eta genero-indarkeriaren aurkako arduradunentzat hezkidetza eta bizikidetza positiboan hiru adituen eskutik formazioa prestatu eta eskaini dugu: irailaren 5ean, otsailaren 2an eta martxoaren 23an..
- Zonaldean Golden 5 programa zabaldu dugu.
